

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1531

AGINDUA, 2024ko martxoaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez minimis araubideari atxikitako laguntzen deialdia egiten baita 2024. urterako, EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko.

Nekazaritza- eta arrantza-jarduerak abandonatzearen eta landa- eta itsasertz-eremuetako belaunaldi-erleborik ezaren gaiak lurralde horietako biztanleen premiei eragiten dieten esparru guztiak aintzat hartuta jorratu behar dira. Hala, oso garrantzitsua da landa- eta itsasertz-eremuak biziberritzeko gizarte-ekitaldiak egitea.

Gizarte-ekitaldiek zeharkakotasuna eskaintzen diote landa- eta itsasertz-eremuari, eta gizarte- eta ekonomia-arloak zeharkatzeko gai diren energia endogenoak sortzeko eta askatzeko gaitasuna. Azpimarratu beharrekoak dira bai gizarte-kohesioa eta identitatea, bai herri edo landa- edo itsasertz-eremu bateko kide izatearen sentimendua, eta gizarte-ekitaldiak elementu intrintseko eta aglutinatzaile bat dira. Hori dela-eta, garrantzitsua da landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak sustatzea, aldi berean nekazaritza-jarduera abandonatzearen eta belaunaldi-erleborik ezaren krisia aukera gisa jorratuz, arazoari aurre egiteko modu berriak ahalbidetzeko estimulu gisa, baita gizarte-arlotik ere, antolakuntza-diseinu malgu batean oinarritutako eredu ekonomiko berrien barnean, ekimena eta lidergo pertsonala (ekintzailatza) eta sare irekiak (Internet, lankidetzak-plataformak) konbinatuz.

Laguntza- programa honen bitartez, landa-eremuko eta itsasertzeko udalerriei bizitasuna eman nahi zaie, eta horietan jarduerak egin daitezela sustatu nahi da, orain arte, ekitaldi gehienak hiri-eremuetan egiten baitira; horregatik, oso garrantzitsua da ahalegin bat egin, eta ekitaldi horiek landa- eta itsasertz-eremuetara eramatea. Era berean, aukera bat da landa-garapenerako laguntzak diziplina anitzeko ikuspegi berri batetik areagotzeko. Landa- eta itsasertz-eremuetan bizi-kalitate altua mantentzeko helburu estrategikoan kokatzen da, zerbitzuei eta ekipamenduei dagokienez; jarduera ekonomikoa sortzen ere lagunduko luke.

Horrela, bada, Agindu honen xedea da gizarte-ekitaldiak egiteko laguntzen deialdia egitea 2024. urterako, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko. Laguntzen programa hori 2024, 2025 eta 2026rako dirulaguntzen plan estrategikoaren barne dago. Plan hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez onartu (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzekoa), eta sailaren brearen webgune ofizialean argitaratu zen.

Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa) ezarritako *minimis* araubidea aplikatu beharko zaie laguntza hauei. Era berean, Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak hauetan ezarritakoaren mende egongo dira: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena –bertan jasota dago oinarritzeko araudia–; eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azken horren erregelamendua onartzekoa.

Aurtengo laguntzen deialdia egitea ahalbidetzen dute hauek: 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, EAEko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzekoa eta EAEko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzekoa; eta 21/2023 Legea, abenduaren 22koa, EAEko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzekoa.

Horien arabera:

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Deialdia.

Onartzea *minimis* araubideari atxikitako 2024. urterako laguntzen deialdiaren oinarriak, EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak egiteko. Agindu honen I. eranskinean jasota daude oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsua jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoak 5.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da, *minimis* araubideari atxikitako laguntzen deialdia egitea 2024. urterako, EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko gizarte-ekitaldiak sustatzeko, helburu hauek lortzen laguntzen badute:

- a) Sektore pribatuaren eta publikoaren parte-hartzea estimulatzea landa- eta itsasertz-eremuetako gizarte-ekitaldiak finantzatzeko orduan, eremu horiek dinamizatzeko.
- b) Gizarte-ekitaldi berriak sustatzea eta landa- eta itsasertz-eremuan inpaktu positibo esanguratsua dutenak finkatzea.
- c) Inpaktu ekonomikoa sortzea jarduera-eremu horretan.

2.– Hauek izango dira dirulaguntzak jaso ahalko dituzten ekitaldiak: lehiaketak, jardunaldiak, eztabaidak, tailerrak, txapelketak, hitzaldi eta erakusketak, musika, antzerki, dantza eta bertsolaritza ikuskizunak, errezitalak eta antzekoak, ekitaldion eragin dinamizatzailea eta inguruaren gaineko inpaktu positiboa agerian jartzen badute. Kanpoan geratzen dira espresuki nekazaritza-jarduerarekin lotutako ekitaldi guztiak, besteak beste, merkatuak, nekazaritza-elikagaien azokak eta tokiko jaiak, baita toki-erakundeek antolatzen dituzten eta toki-erakundeon urteko programazioaren parte diren jarduerak ere.

2. oinarria.– Onuradunak.

1.– EAEko landa- edo itsasertz-eremuetan gizarte-ekitaldiak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak edo publikoak jaso ahal izango dituzte laguntza horiek.

2.– Laguntza hauen onuradun izateko, laguntzen eskabidea egiten duten pertsona fisikoak edo juridikoak honako betekizun orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Diruz lagundutako jarduera EAEko landa- edo itsasertz-eremu batean garatzea, agindu honen II. eranskinean zehaztutako ABetik ZM4ra eta IM1etik IM7ra arteko zaurgarritasun-/itsasertzekotasun-mailako eremuen arabera.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere. Hori egiaztatzeko, kontuan hartuko da Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Agindua (Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa) ezarritako baldintzetan.

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, onuradunen aldetik berariazko baimenik behar izan gabe. Berariaz uko egiten badio, onuradunak egiaztatu egin beharko du alderdi hori. Bestalde, pertsona edo erakunde eskatzailearen edo onuradunaren erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiaztatuko da dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak betetzen direla.

c) Eskatzaileek jakinaraztea diruz lagundu daitekeen gastu bera ordaintzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu dioten ala ez administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribaturen bati, eta eskuratu duten ala ez. Hala bada, laguntza ematen duen erakundearen identitatea eta laguntzaren zenbatekoa jakinarazi beharko dira.

Halaber, jakinarazpen horrek barne hartu beharko du aurreko hiru zerga-ekitaldietan eta indarreko ekitaldian jasotako *minimis* laguntzei buruzko berariazko adierazpen bat, non egiaztatuko baita laguntza hau eman aurreko hiru urteetan 300.000 euro/onuradun-eko muga ez dela gainditzen. Muga hori Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarri zen (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa).

d) Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta egotea eta dagokion Erregistroan inskribatuta egotea.

e) Nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen edo bestelakoen elkarte edo erakundeen kasuan, gutxienez emakumeen presentzia orekatua izatea zuzendaritza-organoetan.

f) Formulatzeari.

3.– Laguntza hauen onuradun izango ez direnak:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeak abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan debeku gisa sailkatuta dauden egoeretako batean daudenak, eta Trans eta LGTBI pertsonen Berdintasun Erreal eta Eraginkorrerako otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan debeku gisa sailkatuta dauden egoeretako batean daudenak.

b) Krisialdian dauden enpresak, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauetan ezarritako definizioaren arabera (2014/C 249/01).

c) Berreskuratze-agindu baten mende daudenak, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

3. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak.

1.– EAEko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzeko eta horietan eragin ekonomiko positiboa duten gizarte-ekitaldiak lagundu ahal izango dira diruz. 1. oinarrian ezarritakoaren arabera, kanpoan geratzen dira nekazaritza-jarduerarekin zuzenean lotutako ekitaldi guztiak, besteak beste, merkatuak, nekazaritza-elikagaien azokak eta tokiko jaiak, baita toki-erakundeek antolatzen dituzten eta toki-erakundeon urteko programazioaren parte diren jarduerak ere. Modu ez-zehatzean zerrendatuta, hauek dira diruz lagundu daitezkeen ekitaldiak: lehiaketak, jardunaldiak, eztabaidak, tailerrak, txapelketak, hitzaldi eta erakusketak, musika, antzerki, dantza eta bertsolaritza ikuskizunak, errezitalak eta antzekoak, ekitaldion eragin dinamizatzailerak eta inguruaren gaineko inpaktu positiboa agerikoa bada.

Hauen arabera ebaluatuko dira eragin dinamizatzailerak eta eragin ekonomikoa: ekitaldira berritatutako pertsonen kopurua, ekitaldiaren iraupena eta ekitaldia antolatzeak tokiko baliabideetan egindako gastua, bai eta tokiko edo eskualdeko beste jarduerak batzuetan eragindako gastua ere, agindu honen 6. oinarrian agertzen den bezala.

2.– Deialdi honen babespean, eskatzaile bakoitzeko ekitaldi bakarrak jaso ahal izango du diru-laguntza. Hala ere, diruz lagundu ahal izango dira gehienez 15 eguneko epean garatzen diren jarduerak bat baino gehiagok osatutako ekitaldiak, baldin eta jarduerak horiek behar bezala identifikatzen badira eskatutako laguntza xede duen ekitaldiaren zati gisa. Kasu horretan, eskabidean zehatz-mehatz identifikatu eta justifikatu beharko dira ekitaldia osatzen duten jarduerak edo ekitaldiaren faseak.

Eskatzaile batek jada emanda balu beste proiektu baterako dirulaguntza bat, eta eskaera berri bat aurkeztuko balu, laguntza ukatu egingo zaio, non eta eskatzaile horrek ez dion uko egiten hasieran emandako dirulaguntza horri.

3.– Jarduerak osorik 2024an egin beharko dira diruz lagundu ahal izateko.

4.– Diruz lagundu ahal izango dira laguntzaren xede diren jarduerak egitearekin zuzenean lotuta dauden gastu guztiak, baldin eta 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortzen badira, eta justifikazio-epea amaitu aurretik zerrendatu, kuantifikatu eta ordaindu badira. Esate baterako, hauek sartzen dira:

- a) Laguntza eskatu den ekitaldia egiteko langile-kontratazioko gastuak (kanpoan geratzen dira erakunde eskatzailearen plantillako langileak).
- b) Ekitaldia eta jarduerak gauzatzeko zerbitzu profesionalen errentamendua.
- c) Lokalen alokairuak (erakunde onuradunaren egoitza sozialaren alokairua kanpo).
- d) Ekitaldiak eta jarduerak gauzatzeko instalazioak eta zerbitzu teknikoak.
- e) Laguntza eskatu den ekitaldien publizitatearekin eta hedapenarekin lotutako gastuak.
- f) Nahitaezko aseguruak kontratatzea.
- g) Emandako garaikurrak edo sariak.
- h) BEZ berreskurazina, BEZari buruzko Espainiako legeriaren arabera.

4.– Jarduerarekin lotutako kapital-inbertsioak edo -gastuak, zergak eta tributuak ez dira inola ere diruz lagundu daitekeen gastua izango, aurreko apartatuan aipatutako BEZ berreskurazina salbu.

5.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundu daitezkeen gastua 40.000 eurokoa edo gehiagokoa bada obretan, edo 15.000 eurokoa edo gehiagokoa gainerakoan, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu obrarako konpromisoa kontratatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, horien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde eskaintza horiek egin, eman edo entregatzeko, edo non eta gastua ez den dirulaguntzaren aurretik egin. Halako kasuetan, kostu-moderazioa egiaztatu beharko da, justifikazio-memoria baten bidez.

Eskaintzek benetakoak eta ez-fikziozkoak izan behar dute, hornitzaile erreal eta independenteenak, eta behar bezain zehatzak izan behar dute, eta elementu berdinak izan, alderagarriak izateko. Aurkeztutako hiru eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta, proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez bada, memoria batean beren-beregi justifikatu beharko da horren arrazoia.

4. oinarria.– Onuradunek diruz lagundu diren jarduketak kontratatzea.

1.– Onuradunak diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 70era arte kontratatu ahal izango ditu dirulaguntza honen xede diren jarduerak.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da onuradunak hirugarren batzuekin hitzartzen duenean dirulaguntzaren helburu den jarduera osorik edo haren zati bat gauzatzeko zeregina. Kontzeptu honetatik kanpo geratzen da onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen

gastuen kontratazioa. Onuradunak diruz lagundu diren jarduketan kontratazioari aplikatuko zaizkie Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikuluan xedatutakoak.

2.– Onuradunaren aurrean baino ez daude behartuta kontratistak, eta onuradunak osorik bereganatuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ardura.

3.– Aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeko, onuradunen erantzukizuna da hirugarrenekin itundutako jarduera diruz lagundua egikaritzean diruz lagundu daitezkeen gastuen izaera eta zenbatekoari dagozkion mugak eta 7. oinarrian ezarritako betebeharrak errespetatzen direla zaintzea.

4.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 42. artikuluan xedatutako lankidetzaren betebeharra bete beharko dute kontratistek, muga horiek betetzen direla behar bezala egiaztatu ahal izateko.

5.– Onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueren exekuzio osoa edo partziala hitzartu Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan jasotako debekuekin loturaren bat duten edo debeku-egoeretako batean dauden pertsonekin.

5. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoa, mugak eta bateragarritasuna.

1.– Laguntza horien zenbatekoak ez du jardueraren kostu osoaren % 60 gaindituko, eta ez da 20.000,00 eurotik gorakoa izango.

2.– Laguntza bakoitzaren banakako zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da 6. oinarriaren arabera lortutako puntuazioaren eta pertsona onuradunak eskatutako zenbatekotik diruz lagundu daitezkeen gastuaren arteko proportzionaltasun zuzenakoa, betiere taula honetan zehaztutako mugak errespetatuz (gutxienez 50 puntu lortuz gero):

Jardueraren puntuazioa	Gehieneko zenbatekoa
90 baino gehiago	20.000 €
80 eta 90 artean	18.000 €
75 eta 79,9 artean	16.000 €
70 eta 74,9 artean	14.000 €
65 eta 69,9 artean	12.000 €
50 eta 64,9 artean	10.000 €
50 baino gutxiago	0

3.– Dirulaguntzen zenbatekoa ezin da sekula izan, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

4.– Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa) ezarritako *minimis* araubidea aplikatu beharko zaie laguntza hauei.

5.– Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek helburu bererako eman ditzaketenekin, baldin eta laguntza guztien baturak ez badu diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketa eragiten. Kasu horretan, dirulaguntza murriztu beharko da, jardueraren guztizko kostutik gorako zenbatekoa kenduta.

Dena den, ez dira bateragarriak izango Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 2024. urtean deitutako gainerako laguntzekin.

6.– Era berean, laguntza hauek batu ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuek, agindu honetakoak ez diren xedeekin, onuradun berdinei emandako *minimis* laguntzei; halere, guztien artean ez dute 300.000 euroko laguntza-atalasea gaindituko, onuradun bakoitzeko eta laguntza eman aurreko hiru urteetan. Muga hori Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarri zen (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa). Hala izanez gero, agindu hau betez eman beharreko zenbatekoak gutxituko dira gehieneneko atalase horretara egokitu arte.

6. oinarria.– Finantzaketa, emateko prozedura eta zenbatekoa zehaztea.

1.– Agindu honen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura 2024ko ekitaldian eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 200.000 eurokoa da.

2.– Laguntza horiek emateko prozedura segidako emakida izango da eta, beraz, espedienteak eskabideen aurkezte-ordenaren arabera aztertu eta izapidetuko dira, eta behar bezala formulatu eta osatu diren ordenaren arabera ebatziko dira.

3.– Laguntza horietara xedaturiko aurrekontua agortuz gero, egoeraren berri emango da Landa-
ren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta. Dagoeneko aurkeztu diren eta izapide-fasean dauden eskabideak, esleitutako aurrekontu-zuzkidura agortzeagatik erantzun ezin direnak, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela eta, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

4.– Aurkeztutako jarduera bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko orduan, aurkeztutako eskabideak baloratuko dira. Eskabide horiei aplikatuko zaizkie erakunde sustatzaileari, jarduera edo proiektuari eta kokapenaren zaurgarritasun-/itsasertzekotasun-mailari buruzko irizpideak, taula honetan jasotako baremazioaren arabera:

Balorazio-irizpidea	Deskripzioa			Puntuazioa	
Erakunde sustatzailea (15 puntu)	Erakunde mota (10 puntu)	Landa Garapeneko Elkartek (LGE)		10 puntu	
		Tokiko erakundea		10 puntu	
		Beste erakunde mota bat	Eskatutako jarduerarekin edo proiektuarekin lotutako esperientzia	5 urte edo gehiagoko esperientzia egiaztatua: 10 puntu	
				2 eta 5 urte arteko esperientzia egiaztatua: 8 puntu	
	Tokiko eragileen inplikazioa: (5 puntu)			2 urtetik beherako esperientzia egiaztatua: 6 puntu	
				Tokiko eragileak inplikatuta daude: 5 puntu	
			Tokiko eragileak ez daude inplikatuta: 0 puntu		
Jarduera edo proiektua (60 puntu)	Ekitaldiaren berezitasuna (5 puntu)	Ekitaldi berezia		5 puntu	
		Aldizkako ekitaldia	Ez du laguntzarik jaso laguntza-deialdi honen aurreko edizioetan: 5 puntu		
			Laguntza jaso du laguntza-deialdi honen aurreko edizioetan: 0 puntu		
	Bideragarritasun ekonomikoa (10 puntu)			Jardueraren kostuaren % 30era arte eskatzen bada: 10 puntu	
				Jardueraren kostuaren % 31 eta % 45 artean eskatzen bada: 8 puntu	
				Jardueraren kostuaren % 46 eta % 60 artean eskatzen bada: 6 puntu	
	Inpaktua (45 puntu)	Nori zuzenduta dagoen (5 puntu)		Jarduera denei zuzenduta dago: 5 puntu	
				Jarduera sektore jakin bati zuzenduta dago: 1 puntu	
		Eragin-eremua (10 puntu)		Nazioartea edo Espainia: 10 puntu	
				EAE: 9 puntu	
				Lurralde historikoa: 8 puntu	
				Eskualdea: 7 puntu	
				Tokikoa: 5 puntu	
		Inpaktu ekonomikoa (20 puntu)	Ekitaldia antolatzeko tokiko baliabideetan egingo den gastuaren ondoriozko inpaktua (eskualdeko hornitzaileak edo kontratatutako langileak) (6 puntu)	Tokiko baliabideetan gasturik ez	0 puntu
				Tokiko baliabideetan egindako gastua, ekitaldiaren kostuaren % 20 baino gutxiagokoa izatea.	5.000 eurotik beherako kostua guztira: 1 puntu
					5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 3 puntu
					20.000 eurotik gorako kostua guztira: 4 puntu
Tokiko baliabideetan egindako gastua, ekitaldiaren kostuaren % 20 eta % 60 artekoa	5.000 eurotik beherako kostua guztira: 2 puntu				
	5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 4 puntu				
		20.000 eurotik gorako kostua guztira: 5 puntu			

Balorazio-irizpidea	Deskripzioa				Puntuazioa	
Jarduera edo proiektua (60 puntu)	Inpaktua (45 puntu)	Inpaktu ekonomikoa (20 puntu)	Tokiko baliabideetan egindako gastua, ekitaldiaren kostuaren % 60 baino handiagoa	5.000 eurotik beherako kostua guztira: 3 puntu		
				5.000 eta 20.000 euro arteko kostua guztira: 5 puntu		
				20.000 eurotik gorako kostua guztira: 6 puntu		
			Eskualdearen esparruan beste jarduera batzuetan eginiko gastuaren ondoriozko inpaktua (12 puntu)	4 ordutik beherako ekitaldia	100 pertsonatik behera bertaratu: 3 puntu	
					100 eta 300 pertsona artean: 5 puntu	
					300 pertsonatik gora: 6 puntu	
				Egun erdiko ekitaldia (4-6 ordu)	100 pertsonatik behera bertaratu: 5 puntu	
					100 eta 300 pertsona artean: 7 puntu	
					300 pertsonatik gora: 8 puntu	
				Egun bateko ekitaldia (6 ordutik gora)	100 pertsonatik behera bertaratu: 7 puntu	
					100 eta 300 pertsona artean: 9 puntu	
					300 pertsonatik gora: 10 puntu	
				Bi eguneko ekitaldia	100 pertsonatik behera bertaratu: 8 puntu	
					100 eta 300 pertsona artean: 10 puntu	
					300 pertsonatik gora: 11 puntu	
			Bi egunetik gorako ekitaldia	100 pertsonatik behera bertaratu: 9 puntu		
				100 eta 300 pertsona artean: 11 puntu		
				300 pertsonatik gora: 12 puntu		
			Eskualdearen eragin ekonomiko gehigarria eta/edo dinamizatzailea (2 puntu)			Bai: 2 puntu
						Ez: 0 puntu
		Genero-ikuspegia jardueraren diseinuan (5 puntu)			Bai, egokia: 5 puntu	
					Bai, partziala: 2 puntu	
					Ez: 0 puntu	
		Berdintasunerako ekintza positiboak (2 puntu)			Bai: 2 puntu	
					Ez: 0 puntu	
		Hedapen-ekintzak (3 puntu)			Bai, eraginkorra: 3 puntu	
					Bai, partziala: 1 puntu	
					Ez: 0 puntu	
Zaurgarritasun-/Itsasertzekotasun-maila (25 puntu)	Jarduera egingo den eremuaren zaurgarritasun-/itsasertzekotasun-maila.	I. eranskinaren arabera. Zaurgarritasuna eta itsasertzekotasuna partekatzen duten erakundeen kasuan, bietatik puntuaziorik altuena emango da (ZM edo IM).		ZM edo IM1: 25 puntu		
				ZM2 edo IM2: 21 puntu		
				ZM3 edo IM3: 17 puntu		
				ZM4 edo IM4: 13 puntu		
				IM5: 9 puntu		
				IM6: 5 puntu		
				IM7: 1 puntu		

7. oinarria.— Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek betebeharrak hauek bete beharko dituzte, baita Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze-ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritakoak ere:

- a) Emandako dirulaguntza onartzea. Horrela, dirulaguntza onartzen dutela ulertuko da, baldin eta dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena egin eta 10 eguneko epean ez badiote beren-beregi eta idatziz uko egiten.
- b) Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.
- c) Onuradunak, halakorik eskatzen bazaio, informazio osagarria bidali beharko du landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzara, diruz lagundutako jardueren garapenaz eta burutzapenaz egoki iritzitako egiaztapen guztiak egin ahal izateko hark.
- d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzen inguruan eskatutako informazioa ematea.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri eman behar diote landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari, idatziz. Egoera horren berri izan bezain laster jakinarazi behar zaio, eta betiere jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.
- f) Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko ekintzak gauzatzeko erabil baitaitezke.
- g) Beren-beregi adierazi beharko da Eusko Jaurlaritzaren babesletza euskarri, kartel, seinale, sari, garaikur eta diruz lagundutako jardueretan dibulgazioa, zabalpena edo, hala badagokio, publizitatea egitekoak badira, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera: (<https://www.euskadi.eus/erakunde-ikurrak-eta-nortasuna/web01-s1ezaleh/eu/>). Txertatu beharreko logoa erabiltzaileen eskuragai jarriko da Administrazioaren egoitza elektronikoan: gaztelaniaz, https://www.euskadi.eus/ayudas_appa/eventossociales_2022; euskaraz https://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/ekitaldi_sozialak_2022
- h) Jarduerarekin lotutako jakinarazpen guztietan, hizkera eta iruditeria inklusiboak erabiliko dira. Ekitaldiaren publizitatean, euskarria edozein dela ere, ez da erabiliko hizkera edo iruditeria sexistarik.
- i) Edizioa, komunikazio-euskarria edozein dela ere, gutxienez euskaraz egin beharko da, kasu guztietan.
- j) Pertsonen bertaratzeari eta parte-hartzeari buruzko informazioa sexuen arabera bereizita lortu eta eskaini beharko da.
- k) Administrazio baten edo erakunde publiko zein pribatu baten beste laguntza edo dirulaguntzaren bat lortuz gero helburu bera betetzeko, horren berri ematea landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari, baita laguntza eman aurreko hiru urteetan jasotako beste *minimis* laguntza batzuen kasuan ere. Egoera horren berri izan bezain laster jakinarazi behar zaio, eta betiere jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen.

l) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, baita dirulaguntzak itzultzearen gainekoak ere.

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen betebeharra betetzen dela, onuradunen aldetik berariazko baimenik behar izan gabe. Berariaz uko egiten dionean, onuradunak egiaztatu egin beharko du alderdi hori.

m) Enpresen deslokalizaziorik ez gauzatzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

8. oinarria.— Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.— Eskabideak, oinarri honen 8. apartatuan adierazitako agiriekin batera, landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio.

Aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasi, eta horretara bideratutako aurrekontua agortzen denean amaituko da. Kasu horretan, 6. oinarriaren 3. apartatuan xedatutakoa errespetatu beharko da. Betiere, eta aurrekontua izanda ere, laguntza-eskabideak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 15ean amaituko da.

2.—Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jarri behar direnek eskabideak elektronikoki aurkeztuko dituzte, oinarri honetako 3. apartatuan adierazitako helbideen bitartez.

Pertsona fisikoek aurrez aurre zein bide elektronikoa erabiliz aurkez ditzakete eskabideak. Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko moduak (elektronikoa zein aurrez aurrekoa) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, eta noiznahi aldatu ahal izango da.

— Aurrez aurre: eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, bat etorriaz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten.

— Bide elektronikoa: 3. apartatuan adierazitakoaren arabera.

3.— Eskabideak bide elektronikoz nahiz presentzialez aurkezteko, inprimaki-eredu normalizatua erabiliko da, helbide hauetan eskuragarri dagoena: gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/1017306>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1017306>

4.— Eskabidea elektronikoki egin ondorengo izapideak, barne direla jakinarazpenak eta justifikazioak, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» gunearen bitartez egingo dira: gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.— Elektronikoki izapidetzeko, helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko onartzen diren identifikazio eta sinadura

elektronikorako bitartekoak: gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>, euskaraz: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6.– Eskaera ordezkari baten bidez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza. Ordezkaritza Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikokoan inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ordezkaririk>

7.– Informazio hau bilduko du eredu normalizatuak:

a) Identifikazio-datuak.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, aurkeztutako agirien egiazkotasunarena eta agindu honetan ezarritako betekizunak betetzearena, baita onuradun-izaeraren debekuetako ezeinetan ez egotearena ere –lekukotza judizialik ezin izan bada lortu–, edo debeku horietako ezeinetan ez egotearen ziurtagiri telematikoa, edo datu-transmisioak edo administrazio-ziurtagiria.

c) Hala badagokio, aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta uneko ekitaldian jasotako gainerako *minimis* laguntzei buruzko berariazko adierazpena, laguntza ematen duen erakundearen nor-tasuna eta zenbatekoa barne.

d) Erantzukizunpeko adierazpena, enpresen deslokalizaziorik ez gauzatzearena, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

e) Ekitaldiari buruzko informazioa biltzen duen memoria, agindu honen III. eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera. Memoria horretan, landa- eta itsasertz-eremuen dinamizazioaren deskribapenaz gain, haren justifikazioa, egikaritze-epeen aurreikuspen bat, eta alderdi hauei buruzko datuak gaineratu beharko dira: finantzaketa, kokapena, enpleguaren sorrera, bideragarritasun ekonomikoa, genero-ikuspegiaren inklusioa, aurreikusitako inpaktuaren justifikazioa eta hedapena, hau da, partaide kopurua eta aurreikusitako publikoa, sexuen arabera bereizita, eta neurketa-sistemaren azalpen labur bat, bai eta jarduerak izango duten inpaktu ekonomikoaren aurreikuspena ere. Aurkezten ez diren datuak edo informazioa ezin izango dira kontuan hartu haren balorazioa egiteko.

8.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte laguntzen eskatzaileek:

a) Pertsona juridikoek, erakundea eratzeko eskrituraren eta estatutuen kopia, dagokion erre-gistroan inskribatu dela adierazten duen zigilua jarrita.

b) Aurrekontuak edo proformako fakturak.

c) Jarduerari emandako laguntza publikoari edo pribatuari dagozkion beste dirulaguntza edo diru-sarrera batzuen ziurtagiria (adibidez: Udala / Foru Aldundia / Eusko Jaurlaritza / beste batzuk).

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztapena, eta NAN/IFKren egiaztapena, eskatzaileak berariaz uko egin badio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek alderdi horiek auto-matikoki egiaztatzeari.

e) Kasuan kasuko BEZaren zerga-araubidearen egiaztagiria.

f) Onuradun edo entitate laguntzaile izatea galarazten duen debekurik ez dutela frogatzeko –Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Lege 13. artikulua-ren 1. apartatutik 4.era bitarte aipatu dira debekuak–, bide hauek dituzte pertsona edo entita-teek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoa edo datu-transmisioak, Euskal Autonomia

Erkidegoko Administrazio Orokorrak teknika elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeko dagokion araudian ezarritakoaren arabera, edo, bestela, ziurtagiri administrati-boa. Agiri hori agintaritza eskudunak egiterik ez badu, haren ordeztu oinarri honen beraren 7.b) apartatua aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena.

Gainera, dirulaguntza-eskabidea aurkezteak esan nahi du eskatzaileak baimena ematen diola Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari zuzenean eskura dezan beste edozein administrazio publikok egindako agiri guztiak, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 2. apartatua.

9. oinarria.— Organo kudeatzailea eta ebazpen-proposamena.

1.— Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari dagokio agindu honetan xedatutako laguntzak kudeatzea.

2.— Landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute agindu honetan ezarritako eskakizunak betetzen direla. Era berean, ekitaldiaren memoria deskriptiboa aztertuko dute, 6. oinarrian ezarritako irizpideen betetze-maila ebaluatuko dute, eta, txosten bat egingo dute irizpide horietan oinarrituta, irizpideon haztapena eta eman beharreko laguntzaren zenbatekoaren kalkulua adierazita.

3.— Txosten hori kontuan hartuta, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren titularrak behar bezala arrazoitutako ebazpen-proposamen bat egingo du, dirulaguntza ematea proposatzen den eskatzailea eta dirulaguntzaren zenbatekoa adierazita.

Gainera, dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzailearen txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren arabera onuradunek betekizun guztiak betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko.

4.— Prozeduran interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira, edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, eta interesdunei jakinaraziko zaie, 10 eguneko epea emanda, alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena formulatuko da.

5.— Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan —ez dagoelako interesdunek adierazitakoez bestelako egitatearik, frogarik edo alegaziorik—, oinarri honen beraren 3. apartatuaren arabera emandako ebazpen-proposamenak behin betiko izaera izango du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10. oinarria.— Ebazpena.

1.— Behin betiko ebazpen-proposamena onartuta, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren titularrak ebazpena emango du, gehienez, lau hileko epean, laguntza-eskabidea aurkeztu den egunetik hasita. Ebazpen horretan, laguntza eman edo ukatu egingo zaio eskatzaileari. Ebazpenak era indibidualizatua jakinaraziko dira.

2.— Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>; euskaraz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Aurreko apartatuan adierazitako epea igarota ez bada berariazko ebazpenik eman, eskatzailaek ulertu ahal izango dute euren eskabidea ezetsi egin dela, bat etorritzat Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoarekin, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.– Aurreikusitako laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Landa-ren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren titularraren ebazpen baten bidez EHAAn argitaratuko da emandako dirulaguntzen eta laguntza jasoko duten pertsonen zerrenda, baita diruz lagundutako gizarte-ekitaldiak eta horiei dagozkien zenbatekoak ere, herritar-rrak jakinaren gainean egon daitezen.

5.– Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dio interesdunak landa-garapenaren arloan eskumena duen saileko titularrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetan, administrazio-isil-tasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluekin bat etorritzat.

11. oinarria.– Justifikazioa eta ordainketa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-eremuetan garatuko diren gizarte-ekital-dietarako laguntzak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra egikaritu ahal izango dira, eta hauen bitartez egiaztatuko da gastuaren betearazpen zuzena:

a) Egindako jarduketan justifikazio-memoria. Bertan, laguntzaren xede den jarduera egikari-tzeari buruzko informazioa jasoko da, erreferentzia eginez batez ere publikoaren bertaratze-ari buruz aurreikusitako inpaktuari eta jardueraren inpaktu ekonomikoari (ekitaldia antolatze-ko toki-baliabideetan egingo den gastuaren ondoriozko inpaktua eta eskualdeko beste jarduera batzuetan eginiko gastuaren ondoriozko inpaktua); hala badagokio, jardueraren zabalkundeari buruzko informazioa ere jasoko da. Gutxienez III. eranskineko ereduari jasotako informazioa-rekin bete beharko da.

b) Fakturak edo froga-balio baliokidea duten agiriak eta ordainketa-ziurtagiriak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritzat. Lagun-tzaren onuradunaren izenean egon beharko dira. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, non zehaztuko baita fakturak eta froga-balio bereko agiriak ez direla aurkeztu beste dirulaguntza-programa batzuk justifikatzeko. Aitzitik, beste dirulaguntza-programa batzuk justifi-katzeko aurkeztu badira agiri horiek, zehaztu beharko da zein d(ir)en dirulaguntza-programa(k) eta, faktura edo justifikazio-agiri bakoitzari dagokionez, zein den jasotako dirulaguntzaren ehunekoa.

c) Ekitaldiaren zabalkundea egiteko eskuorri edo kartelaren ale bat, hala badagokio, non ager-tuko baitira Eusko Jaurlaritzaren babesaren aipamena eta dagokion logotipoa. Dirulaguntza jaso dezaketen ekitaldien kasuan, baldin eta urtarrilaren lehenaren eta agindu hau argitaratu eta hilabeteko epearen artean egingo badira, aipamen hori ez da nahitaezkoa izango.

d) Laguntza jasotzeko, erakunde pertsonifikatu bat eratu behar bada, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

e) Laguntza jasotzeko, manuzko baimenak eta lizentziak aurkeztu behar badira eta laguntza-eskabidea egitean eman gabe badaude, haiexek aurkeztu beharko dira.

Landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrak agiri gehiago eska ditzake, behar bezalako arrazoiak emanda, beharrezko irizten badio.

2.— Laguntzen onuradunek jarduerarekin lotutako gastu guztiak justifikatu beharko dituzte, eta ez jasotako laguntzari dagokion zatia bakarrik. Justifikazio hori 2025eko urtarrilaren 15a baino lehen egin beharko da.

3.— Ordainketa bakarra egingo da, oinarri honen lehenengo apartatuan adierazitako ziurtagiriak egiaztatu ondoren.

4.— Administrazioak dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, onuradunak Eusko Jaurlaritzaren hirugarrenen erregistro egokian egon beharko du. Hirugarren interesdun gisa alta emateko edo datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

5.— Onuradunari ez zaio inolako ordainketarik egingo, baldin eta egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak edo itzulketa-ebazpen batek adierazita zordun bada. Debeku horrek bere horretan iraungo du aipatutako zirkunstantziak gertatzen diren bitartean, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.6 artikulua aplikatuz.

12. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.— Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetako bat aldatuz gero edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batek beste laguntza edo dirulaguntzaren bat emanez gero, landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio idatziz, eta gerta daiteke horren ondorioz dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, baldin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 25. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badira. Ondorio horietarako, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren titularrak behar den aldaketa-ebazpena emango du, eta, bertan, dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doituko dira; horretarako, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutako prozedurari jarraituko zaio.

2.— Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, landaren eta itsasertzaren garapenean eta europar politiken arloan eskumena duen zuzendaritzako titularraren likidazio-ebazpenaren bidez, eta, ondoren, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

13. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Laguntzaren eskatzaileak atzera egin dezake, laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik, betiere. Horretarako, idatzi bat helaraziko dio Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzaren titularrari, zeinek, ebazpen baten bidez, zuzenean onartuko baitu atzera-egite hori, eta prozedura hori amaitutzat emango baitu pertsona horri dagokionez.

2.— Laguntzaren onuradunak eman zaion laguntzari uko egin diezaioke, baita emandako dirulaguntza onartu ondoren eta gastu-betearazpena amaitu aurretik ere. Hori bai, horretarako, beharrezkoa izango da administrazioak ezein ordainketarik egin ez izana, eta pertsona edo erakunde interesdunari ez jakinarazi izana ez-betetzeagatiko prozedura abiarazi dela, edo zehapen-prozedura hasi dela, laguntza-deialdi honen esparruan. Uko egitea adierazteko idazki bat aurkeztu beharko dio

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren titularrari, zeinek, ebazpen baten bitartez, esanbidez onartuko baitu uko-egite hori, eta prozedura hori amaitutzat emango baitu pertsona horri dagokionez. Behin uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, baita emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

14. oinarria.— Ez-betetzeak eta itzulketak.

1.— Onuradunak ez badu betetzen agindu honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, modu horretan emandako laguntzaren xedea osorik hutsalduta, edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzeraz behartzen duen egoeraren batean badago, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikulua araberaz, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren titularrak, interesdunari entzunaldia eskainiko zaio ez-betetzeari buruzko espedientea egin ondoren, ebazpen baten bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak eta dirulaguntza-arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak, bat etorritik 698/1991 Dekretuarekin (abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzkoa) eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikulua erekin, hargatik eragotzi gabe beste neurri batzuk hartzea. Aipatutako zenbatekoak diru-sarrera publikotzat joko dira lege-ondorio guztietarako.

2.— Ezarritako baldintzak eta betebeharrak partez betetzeak, baldin eta osorik betetzetik hurbiltzen bada nabarmen eta onuradunak argi eta garbi konpromisoak betetzeko jardun duela egiaztatzen bada, dirulaguntzaren zati bat ordaintzea ekarriko du, zeina egindako jardueraz osoak guztizkoarekiko duen proportzioa kalkulatu zehaztuko baita. Edonola, onuradunak kobratzeko eskubidea duen zenbateko partziala benetan eta behar bezala justifikatuta eman den dirulaguntzaren zenbatekoa izango da, organo emaileak justifikazioa egiaztatu eta onartu ondoren.

3.— Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketazko prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

15. oinarria.— Datuen babesa.

Agindu hau aplikatuta biltzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Helbide honetan kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/037400-cap2-eu.shtml>

II. ERANSKINA

Udalerrria / Entitatea	Zaugarritasun-/Itsasertzekotasun-maila
Abadiño Abadiño-Zelaieta	4
Abadiño Gaztelua	3
Abadiño Gerediaga	3
Abadiño Mendiola	3
Abadiño Muntsaratz	4
Abadiño Traña-Matiena hiri entitatea	HIR
Abadiño Urkiola	2
Abaltzisketa Abaltzisketa	3
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Abanto	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Cotorrio	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena El Campillo	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Gallarta hiri entitatea	HIR-IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Balastera	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Florida	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Calizas	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Carreras	4/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Cortes	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Los Castaños	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Murrieta	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Picón	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Putxeta	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena San Pedro	4/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Sanfuentes	4/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Santa Juliana	3/IM7
Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Triano	3/IM7
Aduna Aduna	4
Agurain/Salvatierra Agurain/Salvatierra Hiri entitatea	HIR
Agurain/Salvatierra Alangua	2
Agurain/Salvatierra Arrizala	2
Agurain/Salvatierra Egileor	2
Agurain/Salvatierra Opakua	2
Aia Aia	4/IM6
Aia Altzola	2/IM6
Aia Andatza	3/IM6
Aia Arratola Aldea	3/IM6
Aia Arrutiegia	2/IM6
Aia Elkano	2/IM6
Aia Etxetaballa	2/IM6
Aia Iruretaegia	2/IM6
Aia Kurpidea	2/IM6
Aia Laurgain	2/IM6
Aia Olaskoegia	2/IM6
Aia Santio Erreka	2/IM6

2024ko martxoaren 27a, asteazkena

Udalerría / Entitatea	Zaugarritasun-/Itsasertzekotasun-maila
Aia Ubegun Industriegunea	3/IM6
Aia Urdaneta	2/IM6
Aizarnazabal Aizarnazabal	4/IM7
Aizarnazabal Etxabe	3/IM7
Aizarnazabal Etxezarreta	4/IM7
Aizarnazabal Mugitzagaina	2/IM7
Aizarnazabal Saiatz	3/IM7
Aizarnazabal Zubialdea	3/IM7
Ajangiz Kanpantxu	4/IM7
Ajangiz Mendieta	4/IM7
Albiztur Albiztur	3
Alegia Alegia	4
Alegia Errotaldea	4
Alegia Languurrealdea	3
Alegría-Dulantzi Alegría-Dulantzi	4
Alegría-Dulantzi Egileta	3
Alkiza Alkiza	3
Alonsotegi Alonsotegi	4
Alonsotegi Arbuio	3
Alonsotegi Irauregi	3
Altzaga Altzaga	Arreta bereziko eremuak
Altzo Altzo	3
Amezketa Amezketa	4
Amezketa Ergoiena	3
Amezketa Ugarte	2
Amorebieta-Etxano Aldana	3
Amorebieta-Etxano Amorebieta hiri entitatea	HIR
Amorebieta-Etxano Astepe	4
Amorebieta-Etxano Autzagana	3
Amorebieta-Etxano Bernagoitia	2
Amorebieta-Etxano Boroa	4
Amorebieta-Etxano Dúdea	4
Amorebieta-Etxano Etxano	4
Amorebieta-Etxano Euba	4
Amorebieta-Etxano Oromiño	2
Amoroto Elexalde	3/IM7
Amoroto Odiaga	2/IM7
Amoroto Ugaran	2/IM7
Amoroto Urrutia	2/IM7
Amurrio Aloria	2
Amurrio Amurrio hiri entitatea	HIR
Amurrio Artomaña	2
Amurrio Baranbio	2

2024ko martxoaren 27a, asteazkena

Udalerría / Entitatea	Zaugarritasun-/Itsasertzekotasun-maila
Amurrio Bergantza-Ontsoño-Aldama-Pardio-Mariaka	2
Amurrio Delika	2
Amurrio Larrinbe	4
Amurrio Lekamaña	3
Amurrio Lezama	3
Amurrio Saratxo	2
Amurrio Tertanga	2
